

# **MUSIKOTRIZITATEA: PROPOSAMEN BERRITZAILE BAT**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

Egilea: Mentxaka Vázquez, Onintze.

Zuzendaria: Urrutia Gutierrez, Saioa.

**Urtea: 2020**

## Laburpena:

Gradu Amaierako Lan honez bitartez, haurren garapen integralean musikak eta mugimenduak duen garrantzia bermatzen da. Era berean, betiko psikomotrizitateak eskaintzen dituen onurak ezin dira zalantzan jarri, baina gaitasun motorrak hobetzeko prozesu horretan musikaren presentzia baldin badago, prozesua askoz aberatsagoa bilakatu daiteke.

Musika eta mugimendua harremanetan jartzen duen diziplina hau musikotrizitatea deitzen da. Honen lanketarekin, haurrak lan honetan zehazten diren zenbait onura bereganatuko ditu. Azken batean, hezkuntza-sistema berritzeko beharra nabaria da, hortaz, lan honen helburu nagusietako bat agian zaharkituta gelditu den psikomotrizitatea berritzaileagoa den musikotrizitatearekin tartekatzea da.

Bidea urratsen hasteko asmoz, musikotrizitatean oinarritutako esku-hartze bat planteatzen da txosten honetan. Esku-hartze hau *Maristak Zalla Ikastetxean* gauzatu da, zehazki, bi urteko gelan. Aurrera eramandako jarduera guztiak helburu zehatz batzuk betetzeko diseinatu dira, eta hauek fundamentatzeko, zenbait adituen iritzia kontuan hartzen duen teoria erabili da.

Esan beharra dago, nahiz eta txostenean agertzen den esku-hartze hau bi urteko gelan egin, haur hezkuntzako bigarren zikloan egiteko ere egokia izango liratekeela beharrezkoak diren egokitzapenak gauzatu ostean.

## Aurkibidea

1. Sarrera .....	1
2. Marko teorikoa.....	2
2.1 Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan .....	2
2.1.1 Garapen psikomotorra.....	2
2.1.2 Hazkundera eta garapena .....	3
2.1.3 Garapen motorrari buruzko hainbat teoria.....	5
2.1.4 Mugimenduaren garapena: ohiturazko trebetasun eta abileziak.....	7
2.1.5 Mugimenduaren garapena: oinarrizko trebetasun eta abileziak.....	7
2.1.6 Gaitasun motorrak Haur Hezkuntzan.....	8
2.1.7 Psikomotrizitatea eta Haur Hezkuntza .....	9
2.2 Musika eta mugimendua .....	12
2.2.1 Musika eta mugimendua HHn.....	12
2.2.2 Ikasleen garapen integralean musikak duen garrantzia.....	14
2.3 Musikotrizitatea .....	15
3. Proposamena eta esku-hartzea.....	17
3.1 Sarrera eta justifikazioa .....	17
3.2 Oinarrizko kompetentziak.....	18
3.3 Helburua .....	20
3.4 Jarduerak.....	20
3.4.1 Jardueren azalpena .....	21
3.5 Metodologia .....	24
3.6 Saioak .....	26
3.6.1 Saioen sekuentzia.....	26
3.6.2 Saioen fitxa.....	27
3.6.3 Prozedura .....	34
3.7 Ebaluazioa .....	35
3.7.1 Ebaluazio-txantiloia emaitzak.....	38
4. Ondorioak .....	40
4.1 Saioen balorazioa .....	40
4.2 GrALaren esperientzia.....	44
5. Bibliografia .....	47

## 1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honetan, nahiko ezaguna den psikomotrizitatea modu aberatsago batean lantzeko proposamenak ematen dira, hain zuzen, musikotrizitatea izena hartzen duen diziplina batez baliatuz. Aldi berean, iradokizun hauek hainbat teoriekin kontrastatuta eta zenbait adituen iritzia aintzat hartuta justifikatuta agertzen dira txosten honetan zehar.

Hasiera batean, GrALA psikomotrizitateari buruzkoa izango zela jakin nuen, beraz, esku-hartzea honen ildotik joateko beharra zuen. Praktikum III-a egin dudan zentroan nengoela, zuzendariarekin bildu nintzen bertan psikomotrizitatea nola lantzen zen jakiteko asmoz. Zuzendariak, betiko psikomotrizitatea diziplina berritzaile batez ordezkatzeko zutela azaldu zidan, musikotrizitatea.

Ikastetxeko zuzendariak musikotrizitateari buruzko ikasketak dituen gizon batek, irakasleei hainbat formazio saioak eskaintzera etorriko zela aitortu zidan eta saio horietara gonbidatu zidaten. Honetaz gain, HH3 gelan gauzatutako zortzi saio behatzera ere joan nintzen, lau musikakoak eta gainontzekoak psikomotrizitatekoak. Horrela, zortzi saio hauetatik ideia ezberdinak hartu nituen eta musikotrizitateko esku-hartzea prestatzen hasi nintzen.

Lehen momentutik erronka handia zela nekien, izan ere, esku-hartzea bi urteko gelan egingo zen, eta lehenengo zikloko hurrekin egitean, aldezturik ezarritako helburuak ez betetzearen beldurra sentitzen nuen. Hala ere, beharrezkoak diren egokitzapenak eginda, musikotrizitatea adin txikiko hurrekin ere egin daitekeen diziplina bat dela ziurtatzeko aukera izan dut.

Txosten honetan jasotako informazioa modu koherente eta argi batean aditzera emateko, hiru atal nagusi bereizten dira: marko teorikoa, esku-hartzea eta ondorioak. Lehenengoaren kasuan, jorratzen den gaiaren inguruan adituen iritzia azaltzen dira. Esku-hartzean, ordea, alderdi praktikoa modu sakon batean aztertzei aukera dago, eta ondorioetan, esku-hartzearen eta GrALaren hausnarketa orokorra agertzen da txostenari amaiera emanez.

## 2. Marko teorikoa

### 2.1 Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan

#### 2.1.1 Garapen psikomotorra

Garapen psikomotorra psikologian sortu zen kontzeptu bat da, eta bertan, mugimendua eta pertzepzio sentsoriorra biltzen dira. Pertzepzioa sentsazioei esker ezartzen da esperientzia motorren bidez, era honetan, haurrak entzumeneko, ikusmeneko eta ukimenezko sentsazioen artean, gehien interesatzen zaizkionak aukeratzeko jolasak eta mugimendua aurrera ateratzeko helburuarekin (Durivage, 2005).

Garapen psikomotorren helburu nagusia umearen eta ingurunearen artean dagoen harremana sendotzea da. Hori horrela, jarduera pertzeptiboak, motorrak, gorputz-eskemakoak, espazio-denborazkoak eta jolasak proposatzen dira. Garapen psikomotorrak, ez du bakarrik eredu psikomotrizistak planteatzen duten eredu motorra garatzea suposatzen behar, baizik eta mugimendua ulertzeko beste modu batzuk garatzea ere.

Ilido beretik, haurrak mugitzeko beharra du, bai eta ahalmena ere. Horregatik, hezkuntza-sistemaren helburu nagusien artean haurren beharrak asetzea eta bere gaitasunak garatzea aurkitzen da (Zulaika, 2000). Arestian aipatu den bezala, haurra mugitzeko beharra izateaz gain, mugimendu hori berezkoa du, hau da, ez da kanpotik irakatsi edo sortu beharreko joera bat.

Haurrak mugitzeko duen ahalmenari helduz, eboluzionatzen doan gaitasun bat da. Haurrak lortutako heldutasun mailak eta mugimendu-arloan izandako esperientziak baldintzatuko dute haren hazkundea eta bilakaera. Era berean, haurrak jaiotzetik, baditu berezkoak diren hainbat erreflexu. Pixkanaka, nerbio-sistemaren garapena helduz doan heinean, mugimendu berriak agertzen hasiko dira. Horretarako, haurra lehendik barneratuak zituen mugimenduetan oinarrituz ikasten ditu mugitzeko eredu berriak, hots, mugimendu multzo bat menderatzen du, eta esperimentazioaren bidez, gero eta eginkizun konplexuagoak gauzatzeko gai da.

## 2.1.2 Hazkundera eta garapena

Garapen-prozesuaren eboluzioa bi alderditan oinarritzen da. Lehenengoa, alde kuantitatiboa, sistema neuromotorraren eboluzioan oinarrituta, hezur, gihar eta artikulazio egituren heltzeari dagokiona, horrekin batera, jarrera eta mugimendu-egiturak garatuz doaz. Eta bigarrena, alde kualitatiboa, gorputz-hizkuntza, adierazpen tonikoa, adierazpen motorra, eta harremanetakoaren heltzeari dagokiona (Didriche, Aucoturier eta Mendel, 2004).

Honetaz gain, haurtzaroan eta gaztaroan gertatzen diren prozesu aipagarrienen artean, hazkundera nabarmendu behar litzateke. Gorputzak hainbat itxuraldaketa eta eraldaketa jasaten ditu, neurgarriak diren aldaketa fisiko eta biologiko ugari, pisua eta altuera, besteak beste.

Hazkundera eta garapena oso lotuta badaude ere, kontzeptu ezberdinak dira. Hazkunderaz hitz egiterakoan, organoen neurrien handitzeari egiten diogu erreferentzia eta kanpotik erraz neur eta antzeman daiteke. Garapenak, berriz, heldutasun maila prozesu horren kalitatea balioesten du, esaterako, hezurren eraketa. Hori horrela, esan daiteke hazkunderak fenomeno ikuspegi kuantitatibotik aztertzen duela, eta garapenak, ordea, kualitatibotik (Didriche, Aucoturier eta Mendel, 2004).

- Eragina duten faktoreak

Hazkundera eta garapena baldintzatzen duten aldagaiak finkatzerakoan, herentzia eta ingurunea aipatzen dira eta bien arteko elkarrekintzatik sortzen da azken emaitza. Ezaugarri batzuk herentziak zehazten baldin baditu ere, inguruneak erraztu edo oztopatuko ditu, eta, bere osotasuneraino iritsi ahal izatea ala ez baldintzatuko du (Zulaika, 2000). Ezaugarri horiek honako hauek izan daitezke:

- a. Herentzia faktoreak: Jaiotzatik pertsona bakoitzak markatuta dituen ezaugarriak.
  - Faktore genetikoa: Pertsona bakoitzak bere espezie, arraza eta senideko ezaugarriak jasotzen ditu. Informazio hori kode genetikoa igortzen da.
  - Sexu-faktoreak: Hazkunderari eta garapenari dagokionez, sexuaren arabera, hainbat ezberdintasun antzematen dira. Estatistikoki mutilak gehiago hazten dira, eta neskek, goizago.

b. Inguruneari lotutako faktoreak: Pertsonaren kanpotik eragiten duten aldagai horiek hazkuntza suspertu eta susta dezakete; edota eragotzi eta oztopatu.

- Jaio aurretiko faktoreak: Haurdunaldian, amarengan sortutako eraginak dira. Erditze-unean sortutako zenbait arazok ere eragin handia izan dezakete geroko hazkunderan.
- Jaio ondorengo faktoreak, hala nola, ezaugarri sozioekonomikoak, elikadura, ingurune fisikoa, eritasunak, ezaugarri psikologikoak, jarduera fisikoa...

- Hazkunderaren adina

Hasi baino lehen, aipatu behar da garapen eta heldutasun maila berdina duten bi haur ez daudela. Desoreka hori argitzeko asmoz, bi adin mota bereizi ohi dira: adin kronologikoa eta adin biologikoa. Alde batetik, adin kronologikoa dago, denboraren kontzeptuari heltzen diona. Honek, jaiotze dataz geroztik zenbat denbora igaro den adierazten du, hau da, zenbat denboraz bizi izan den. Bestetik, adin biologikoa, pertsona baten organo, sistema eta funtzioek zernolako garapen eta heldutasun maila duten zehazten duena.

Era berean, ume batek garapen-prozesuan zein une edo mailatan dagoen zehaztu ahal izateko, hainbat adierazle erabili ohi dira. Irizpide horien arabera, honako sailkapena hauek sortzen dira: hortz adina, adin sexuala (sexu-adina), adin somatikoa (gorputz-adina) eta adin eskeletikoa.

- Hazkundera eta gorputz sistemak

Gorputz-sistema bakoitzaren hazkundera eta garapenak baditu bere berezitasun eta ezaugarri propioak. Hala ere, guztien arteko ezaugarri komunak aurki daitezke. Jarraian, hazkundera-prozesuan esanguratsuenak diren sistemak aztertuko dira:

- a) Eskeleto sistema: Hasieran, kartilago eguna sendotu egiten da, nerabezaroan hezurra bihurtu arte. Prozesu honen eraginez, gorputzaren neurri eta itxura aldatuz doa. Genetikak, elikadurak eta beste hainbat eragilek hazkundera baldintzatzen dute. Jarduera fisikoak hazkundera erraztu edo laguntzen duela baieztatu daiteke.
- b) Gihar sistema: Sistema eskeletikoarekin, harreman estua du, bai eta gorputz-garaierarekin ere. Honetan, gihar-zuntzen kopurua ez da ugalduko; horien

bolumena eta lodiera baizik. Jarduera fisikoak eragin izugarria izango du hazkunde horretan.

- c) Ehun adiposoa: Azal azpiko gantzezko ehunaren kantitatea eta banaketa faktore ugariren menpe dago: genetikoak, elikadurazkoak, hormonalak, jarduera fisikokoak...
  - d) Nerbio sistema: Honen hazkundera oso azkarra da.
- Jarduera fisikoa eta hazkundera

Oso zaila da jarduera fisikoak hazkunderetikiko duen eragina zehatz-mehatz zehaztea, hazkundera sistema endokrinologikoak erregulatzen duelako. Hala eta guztiz ere, jarduera fisiko orekatuak hazkunderan dituen hainbat eragin positibo eta onura frogatuta daude. Bestetik, jarduera gabeziak hezurren deskaltzifikazioa sortzen du, hazkunderako guztiz kaltegarria suertatzen dena. Dena den, gehiegizko jarduerak, batez ere pubertaro aurretik, eragin kaltegarriak sor ditzake, hala nola, gehiegizko nekea, hazkunderaren atzerapenak, gehiegizko estresa...

### 2.1.3 Garapen motorrari buruzko hainbat teoria

Gizakiaren garapenari buruz, ikerketa ugari gauzatu izan dira historian zehar. Era berean, zenbait aditu gaiaren inguruko ikuspegi ezberdinak aditzera eman dituzte. Honako bat Piaget da, garapen psikologikoaren teoria garatu zuena. Bertan, umeak bere nortasun propioa eraikitze mugimenduak duen garrantzia azpimarratzen da. Aldi berean, ezagupenaren prozedurak mugimenduan oinarritzen direla dio. Adimena garatuz doan neurrian, mugimenduaren eragina gutxitu egiten da (Vizcarra, 2007).

Garapenaren inguruko ikerketak gauzatu zituen beste aditu bat Wallon da. Honek, teoria psikobiologikoa planteatu zuen, funtzio psikologikoak eratzeko mugimenduaren eragina aintzat hartzen duena. Gessell adituak ere, heldutasunezko teoria aditzera eman zuen. Honetan, ordea, portaeraren eta jokabidearen garapena heldutasunaren barne-prozesuen menpe daudela azaltzen da (Vizcarra, 2007).

Ilido beretik, gai honen inguruan Vigotsky-k egindako ekarpenak ezin dira ahaztu. Honek, ezagutzaren eraikuntzan oinarritutako teoria planteatu zuen, ingurune soziokulturalen eragina ikaskuntza-prozesuetaz aritzen dena. Umeek jasotzen duten informazioaren arabera ezagutza eraikitzen dute, hau da, umea ingurune soziokultural



zehatz baten barruan dago, eta horrek haren garapena baldintzatuko du (Vizcarra, 2007).

Emmi Pikler-rek umeekin lan psikomotorra gauzatzeko ere proposamenak egin zituen. Honetan, helduaren esku-hartze eza premiazkoa da, eta bai espazio bai material egokiak erabiliz, haurra mugitzeko askatasun osoa izango duen hezkuntza-metodo berri bat planteatzen du. Hori horrela, presioak alde batera utzita, umeen alderdi motorra modu aske eta autonomo batean garatu behar da, eta helduaren esku-hartze barik, erritmo ezberdinak errespetatuko lirateke (Pikler, 2011).

Garapen motorraren inguruan planteatu diren teorien artean, Le Boulch adituak, psikokinetikoa den metodo bat proposatzen du. Metodo honek helburu bikoitza du: oinarrizko trebetasun motorrak perfektionatzea eta mugimenduak hezkuntzaren beste alderdi batzuetan laguntzea. Le Boulch-en aburuz, lan psikomotorrak ikasteko gaitasun hobea dakar eta erronka psikomotorrak gainditzeko bitarteko gisa hezkuntza motorra proposatzen du. Bere esanetan: *“La educación psicomotriz debe ser considerada como una educación de base en la escuela elemental. Ella condiciona todo los aprendizajes preescolares y escolares”* (Núñez, 2012).

Victor Da Fonseca autoreak haurren garapenaren inguruko interes handia erakutsi zuen. Honen ustez, umearen garapena ezinbesteko elementua da pentsamenduaren goi-mailako prozesuak modu esanguratsu batean betetzeko. Giza garapen psikomotorrak, ordea, agerian uzten du giza bilakaera progresiboa, ekintzak hobeto integratu, planifikatu eta arautzeko bidean. Aldi berean, garapen neurologiko eta motor hori mundu soziokultural batean murgilduta dagoen subjektu batean gertatzen da, hots, egokitu eta esperientzia sozio-historikoaz jabetzeko joera duen zibilizazio batean (Ferrándiz, 1999).

Haurren garapenaren inguruan ikertzen ibili ziren autore guzti hauen artean, Guy Azemar ere dago. Honek, haur garapen motorrarekiko interesa agertu zuen azkenengo honen barruan etapa ezberdinak bereizten direla aitortuz. Era berean, jaiotzetik bost urte bete arte, haurren motrizitatea esploratzeko bide bat dela azaltzen du. Etapa hau haurrak egindako mugimenduek ingurunean duten ondorio zuzenari baino ez diolako garrantzia ematen karakterizatu egiten da (Ferrándiz, 1999).

Azkenik, adituek gizakiaren garapenaren inguruan planteatutako teoriekin amaitzeko, teoria psikoanalista aipatzeko beharra dago. Teoria hau, pertsonen arteko

harremanen eragina aztertzen du, hots, mugimenduak eta gorputzak pertsonen arteko harremanetan duten garrantzia azpimarratzen du. Psikoanalisian murgilduta ibili ziren egileen artean La Pierre, Aucouturier eta Freud aurkitzen dira (Vizcarra, 2007).

#### 2.1.4 Mugimenduaren garapena: ohiturazko trebetasun eta abileziak

Sánchez Bañuelosen ustez, ohiturazko trebetasun eta abileziak umearen eguneroko esperientzia motorrarekin lotuta dauden mugimenduak dira. Hauen artean honako hauek bereizten dira: ibiltzea eta katamarka ibiltzea, bultza eta erakarri, esertzea eta zutitzea, zerbaiti eustea, gauzak jasotzea edo altxatzea, makurtu eta altxatzea, lasterketa eta salto egitea (Bañuelos, 1992).

Ohiturazko trebetasun eta abilezien artean, lokomozioarekin edo manipulazioarekin zerikusia duten mugimendu guztiak aurkitzen ditugu. Gomezen ustez, gorputza hautematearen etapa da. Hori horrela, esperientziagatik eta egiten dituen asoziazioagatik umea bere irudia eratuz joango da (Gomez, 2003).

Manipulazioari helduz, honen bitartez, afektibitatea eta ezagutza joango dira finkatzen bai eta haurra ingurunera moldatzen ere, eta ondorioz, umea espazioa ezagutzeko eta egituratzeko gai izango da. Era berean, nolabaiteko intentzioko norabidez eta eraginkortasunez burutuko ditu mugimenduak eta manipulazio gaitasuna gero eta hobeto kontrolatuko du.

#### 2.1.5 Mugimenduaren garapena: oinarrizko trebetasun eta abileziak

Lehenengo 5-6 urtetan umeak oinarrizko mugimenduak eskuratzen ditu, baina, aldezturik oinarrizko trebetasun eta abileziak eskuratzen ditu (4 urte arte). 5-6 urtetan oinarrizko trebetasun eta abileziak eskuratzen dituen heinean, 6-9 urtetan mugimendu horien egonkortasuna, finkatzea eta zehaztasuna gertatuko da.

Oinarrizko abileziak landuz, pertsonaren mugimenduaren kalitatea hobetuko da, hau da, egoera baten aurrean mugimendu egoki baten aukeraketa errazten dute. Umea esperimentazioaren bidez, mugitzeko posibilitateak deskubrituz joango da, hortaz, umeak probak egin behar ditu, saiatu behar du.

Sánchez Bañuelosek dioenez, honako hauek dira oinarrizko trebetasunak eta abileziak: lekualdaketak, jauziak, birak, jaurtiketak eta harrapatzea. Lekualdaketen

kasuan, gorputza alde batetik bestera mugitzean datza. Edozein lekualdaketak norabide bat du, eta, nolabait ere, zentzu bat, hau da, zerbait egiteko, lortzeko, eskuratzeko... Lekualdaketen eraginkortasun maila altua lortzeko, koordinazioa eta mugimenduen kontrola handia izan behar da (Bañuelos, 1992).

Jauziei erreparatuz, giza motrizitatearen ekintza garrantzitsu bat dira. Jauzia bi hankekin batera lurra uztea da, bi hankak indarrez luzatzen direlako. Gorputza airean gelditzen da momentu batez eta hori hanken bitartez bultzatu behar da. Jauzia bertikala edo horizontala izan daiteke eta oreka ezinbestekoa da.

Birei dagokionez, pertsona orientatzeko eta egoki kokatzeko erabiltzen dira. Bira eman ondoren, burua desorientatzen da eta norberak aurkitu behar du berriro espazioa eta espazio-orientazioa. Orientazioa garatzeaz gain, biratzea zorabioaren plazerra ekartzen dio umeari.

Jaurtitze eta harrapatze abileziak elkarrekin joaten diren bi izaten dira. Jaurtitzea giza trebetasuna da eta ez dago beste animaliarik hori egiten duenik. Jaurtitzea, berez, prozesu kognitibo batean oinarritzen da. Adituek esaten duten bezala jaurtiketaren bidez umearen lateralitatea finkatzen da. Harrapatzea, ordea, mugikari bat geldiarazteko edo kontrolatzeko esku bat edo biak erabiltzea da (Wickstrom, 1990).

#### 2.1.6 Gaitasun motorrak Haur Hezkuntzan

Gaitasun motorrak ohiturazko eta oinarritzko trebetasun eta abilezien bitartez garatuko dira. Gaitasun hauen lanketarekin, informazioa nola prozesatzen den aztertu behar da, hau da, umeak kanpotik datorkion informazio hori guztia nola barneratzen duen (Vizcarra, 2007).

Haur Hezkuntzan gaitasun motor esatean, trebetasun motor zein fisikoa lantzeko baliagarriak diren gaitasunei erreferentzia egiten zaie. Trebetasun motorra garatzeko gaitasunen artean, koordinazioa, oreka, gorputz-eskema eta espazio-denborako egituraketak azaltzen dira. Trebetasun fisikoa garatzeko gaitasunak, berriz, indarra, malgutasuna, abiadura eta erresistentzia dira (A. Vaquero, 1991).

Jarraian, gaitasun motorrak modu sakonago batean aztertuko dira. Castañer eta Camerino 1993-ren ustez, koordinazioan gaitasun motor guztiak biltzen dira, honek gorputz gaitasuna adierazten baitu. Koordinazioak mugimendu baten abiadura

hobetzea, mugimendu eraginkorrak gutxieneko ahaleginarekin egin ahal izatea, gihar tentsioaren-lasaitzearen arteko harmonia lortzea, lateralitasuna menderatzea, espazio-denborako egituraketa finkatzea eta oinarritzko abilezi eta trebetasunak menderatzea ahalbidetzen du (Castañer eta Camerino, 1993).

Orekari dagokionez, jarrera berean irauteko gaitasuna da, nahiz eta kanpoko indarrak jarrera horren aurka egon. Aldi berean, gorputz-eskemarekin lotura estua du eta bi oreka mota bereizten dira: estatikoa eta dinamikoa (Vizcarra, 2007).

Gorputz-eskemaren kasuan, norberak bere gorputzaren inguruan duen irudiarekin harreman estua du. Honetaz gain, gorputzaren kontrola orokorra zein atalkakoa izan daiteke. Gorputzaren kontrol orokorra jarrerarekin, erlaxatzearekin eta gihar tonuaren tentsioarekin lor daiteke, eta gorputzaren atalkako kontrola arnasketarekin eta lateralitatearekin. Gorputz-eskema garatzen denean gorputza espazio barruko edozein ezbeharren aurrean kontrola daiteke (Vizcarra, 2007).

Gaitasun motorrekin amaitzeko, espazioko eta denborazko egiturak daude. Espazioko egituraren barruan garrantzitsua da gorputz-adarrak espazio baten barruan kokatzen direla jakitea eta gauzak espazioan non kokatzen diren jakin behar da, horiek erreferentzia gisa erabili ahal izateko. Denborazko egiturei helduz, edonork mugimendua analizatzeko duen gaitasuna da eta iraupena, ordena eta tartea ezagutzen direnean denbora ezagutzen da (Vizcarra, 2007).

### 2.1.7 Psikomotrizitatea eta Haur Hezkuntza

- Psikomotrizitatea: kontzeptua

Psikomotrizitatea heziketa metodologia edo teknika zehatz bat baino zerbait gehiago da, heziketaren filosofia da, bizitza ulertzeko eta jokatzeko era berezia. Azken batean, munduan egoteko eta izateko modu bat da (Aucouturier, 2004). Mugimenduaren bidez pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetu, erraztu eta suspertzen duen gaitasun gisa definitu ohi da psikomotrizitatea.

Kontzeptu honen baitan, ikasle edo ume guztiak berdinak ez direla presente egon behar du. Hortaz, ume bakoitzak dituen aukerak izango dira beren ikaskuntzen abiapuntua (Aucouturier eta Mendel, 2004). Ume guztiek ez dituzte ikaskuntzak

barneratzeko beharrezkoak diren posibilitate berdinak, ezta horiek finkatzeko ere. Era berean, ume bakoitzak denbora eta erritmo jakin bat behar du.

Ilido beretik, psikomotrizitatea umearen eremu guztietan landu behar da: afektiboan, motrizitatean eta kognizioan. Dena den, umearen heldutasuna errespetatu eta nortasuna era harmonikoan sartzea lortu behar da. Psikomotrizitatearen estrategia pedagogikoak umearen ezagupenak eraikitzean du abiapuntua, eta umeen parte-hartzea bultzatzen du. Espazioa txokoetan banatzen da, umeak aukeratzen du zein jarduera mota egingo duen eta zein izango den jardueraren intentsitatea.

Bestalde, jolasak izugarriko garrantzia du umearen garapen osoan, jolastean kontzentrazio maila oso handia behar delako. Horretan oinarritzen da psikomotrizitatea, umearen oinarriko beharrak asetu nahi ditu. Psikomotrizitatearen helburuen artean ondorengo hauek bereizten dira: komunikatzeko plazerra (komunikazioa jauzi eginez, biratuz... adierazten da), sortzeko plazerra (manipulazioaren bidez ongizatea bereganatzen du) eta ekintza operatiboen plazerra (umeak bere behar eta lehentasunak asetzeko, emozioen bidez errealitatea aldatzen saiatzen da).

Psikomotrizitatea, azken batean, gizakiak gorputzaren bitartez mintzaira adierazteko duen aukera bat da, komunikatzeko baliabide bat. Honetaz gain, eskolako ikasketa-prozesuan, zenbait trebetasun funtsezkoak dira (irakurketa, idazketa, kalkulua), aurreragoko beste zenbait gaitasun konplexuagoen oinarri direlako. Oinarriko ahalmen horien eskuratze prozesuan, psikomotrizitateak zeresan izugarria du.

- Psikomotrizitatea: korrante teorikoak

Hamaika dira psikomotrizitatearen inguruan zenbait aditu planteatu dituzten teoriak. Henry Wallon-ek psikismo eta motrizitatearen arteko harremanak sendotzeko ikerketak egin zituen, gizakiaren lehenengo hizkuntza mugimendua zela esanez, berak ematen baitio umeari aukera bere beharrak asetzeko. Aldi berean, motrizitatearen garrantzia goraiatzen du umeak jarrera eta jokabideen bidez munduarekin harremantzen ikasten duelako. Hori horrela, Wallon-en ustez, mugimendua da inteligentziaren lehenengo adierazpena (Vizcarra, 2007).

Piaget-ek ordea, ezagutzaren psikologia eta mugimenduaren garrantzia azpimarratzen zuen. Honen ustez, gorputza ezinbesteko erreferentzia izanda, jarduera motoreek ezagutzarako bidea egiten dute. Aditu honek, motrizitatearen garrantzia

goraipatzen zuen gizakiak objektuekin eta hauek manipulatuta bere pentsamendua egituratzen duelako (Piaget, 1973).

Bestalde, Le Boulch eta psikozinetika daude. Azkenengo hau, ikuspegi zientifikoaren barruan kokatzen da eta portaera motorren oinarri neurologiko eta dinamikoak aztertzen ditu. Bertan, Heziketa Fisikoa ez da arlo bereizi eta isolatu gisa azaltzen, mugimenduaren heziketaren bidez, garapen psikomotorra suspertzen delako (Núñez, 2012).

Picq eta Vayer psikomotrizitatearen inguruko ikuspegi psikopedagogikoa azalera zuten. Jarduera pedagogiko hori haurren portaera normalizatzen saiatzen da, heziketa fisikoaz baliatuz. Vayeren ustez, gorputzaren mintzairak, gorputz-eskeman eta gorputza objektuekin duen harremanean zentratuta egotea garrantzi handia du. Horrela, komunikatzeko beharra lan psikomotorren oinarri bihurtzen da (Picq eta Vayer, 1977).

Aipatu behar den beste aditu bat Bucher da. Honek, haurren nortasuna aztertzen du, behaketa psikomotorrean oinarrituta. Haren aburuz, gorputzaren bitartez, gorputz kontzientziarekin batera heziketa osagarria gauzatu behar da, eraginkortasun maila landuko delako, gerora, jarduera konplexuagoak aurre egiteko ahalmena jasoz (Bucher, 1976).

Lapierre eta Aucouturier psikoanalistak, bizipeneko eta harremanetako psikomotrizitatean aritu ziren. Bizipenekoa, gorputzaren bidez afektuzko eta emoziozko harremanak bizi direlako, eta harremanetako psikomotrizitatea, gorputza adierazteko eta hautemateko umearen lehenengo tresna delako (Lapierre eta Aucouturier, 1980).

Korrante teorikoekin amaitzeko, Ajuriagerra eta Soubiran aurkeztuko dira, erlaxazioaren, psikoanaliaren eta psikoterapiaren tekniketaz baliatu zirenak. Bi hauen esanetan, edozein interbentziotan, gihar-tonua eta lasaitzearen inguruko teknikak garatzen diren heinean, egitura motorrak, intelektiboak eta afektuzkoak aintzat hartu behar dira (Ajuriagerra eta Soubiran, 1959).

## 2.2 Musika eta mugimendua

### 2.2.1 Musika eta mugimendua HHn

Haurraren adierazpen musikalaren eta mugimenduaren garapena aztertzeko, behaketa premiazko tresna bihurtzen da. Honi esker, haurraren adierazpenen garapenean sakontzeko aukera dago. Behaketa hauek haurra jaioberria denetik, sei urte arte gauzatzea gomendatzen da, umearen garapena modu esanguratsu batean ematen den tarte delako (Garcia, 1995).

Era berean, adin bakoitzak bere adierazpen propio eta bereziak dituela argi dago. Dena den, haurraren lehenengo urteetan, erantzun erritmikoak melodikoak baino ugariagoak dira. 5-6 hilabetetik aurrera, nahita edo apropos, objektu ezberdinak mugitzen eta kolpekatzen ditu sortzen den soinua atsegin duelako. Adin tarte honetan, soinu-estimuluen aurrean erantzuteko gai da, adibidez, haien atsedeen-jarrera aldatuz. Aldi berean, erantzun erritmikoak agertzen dira, esaterako, buruaren kulunka (Garcia, 1995).

Ondoren, urte batekin, txaloka hasten da eta horrek liluratzen du haurra. Jarrera hauek, behatuz eta gero imitatuz ikasten ditu eta haurra aurkezten dituen koordinaziozko lehenengo jolas motor gisa sailkatzen dira (Tafari, 2006). Pixkanaka, bere mugimenduen kontrola eskuratzen doa eta bakarkako ekintzetatik, imitazioa nagusitzen den ekitza kolektiboetara igarotzen da (Garcia, 1995).

Bere bizitzako hamabi hilabete hauetan, estimuluei erantzuteko asmoz, gorputz osoa erabiltzen hasten da, betiere, modu erritmiko bat mantenduz. Momentu honetan, haurra ahopekako kantuaren bidez komunikatzen hasten da eta alde aurretik entzun dituen soinuak errepikatzeko gai dela ikasten du. Honetaz gain, erritmo bortitz bat entzutean, azkar kulunkatzen da, hortaz, soinuaren eta mugimenduaren arteko lotura bat ezartzen dela esaten da (Garcia, 1995).

Umea 15-18 hilabete izan arte, erakusten dituen erantzun motorrak nagusitzen joaten dira eta mugimendua komunikatzeko bitartekotzat jotzen du. Urte eta erditik aurrera, haurra musika entzuten duenean, lau jokabide motor gauzatzen dituzte: dantza, jauziak, besoien mugimendua eta txaloak. Hori horrela, adin honetan alderdi motorra nahiko garatuta egoten da.

Bi urte dituenean, ordea, erritmoa hobeto menperatzen hasten da eta musikarekin lotuta gauzatzen dituen mugimenduak askoz konplexuagoak dira, hala nola, oinekin zoruan kolpeak eman, burua mugitu, gorputz guztia kulunkatu... Azken batean, bere atentzioak entzuten dituen soinu guztiak harrapatzen ditu (Garcia, 1995).

Urteak betetzen dituen heinean, talde lanean aritzeko gaitasuna eskuratzen duenez, besteekin batera ariketa erritmikoak gauzatzeko gai bihurtzen da, imitazioa elementu garrantzitsu bat izanda. Haurraren garapen linguistikoa ere nabaria da adin hauetan, umea abesti laburrak gogoratzeko eta erreproduzitzeko gai izateraino (Garcia, 1995).

Lau urterekin, berriz, abestiak abesteaz gain, hauek keinuekin laguntzen hasten da, beraz, abesti dramatizatuak sortzen dituela esan daiteke. Bestalde, bost urte betetzean, umearen gaitasun musikalean zenbait hobekuntza ematen dira. Abestien erritmoa mugimendu ezberdinen bitartez adierazten du eta intonazioa ere hobetzen doa. Azkenik, sei urte dituenean, umea bere gaitasun musikala garatuz doa eta egiteko gai den ekintzak askoz konplexuagoak bilakatzen dira (Garcia, 1995).

Argi azaldu den bezala, haurtzarotik mugimendua musikarekin lotuta dago, izan ere, haurra mugitzen da musika entzuten duenean. Hala ere, denboraren poderioz, batasun hori ezabatuz doa, gure kultura eta beldurra direla medio.

Hainbat autoreek, ikusmen, entzumen eta kinestesia prozesuen arteko oreka egokia musika-trebetasunak garatzen laguntzen duela diote. Mugimendua musikaren erantzun bezala, haurraren gan plazerra eta dibertsioa sortzen du, eta musikak adierazpen artistikorako modu berri batean bilakatzen da. Gainera, musika entzumen artea izateaz gain, kinestesikoa da (Shenan, 1987, Mueller eta O'Hagin 2002).

Haurrak musika entzutean egiten dituen mugimenduak musikarekiko elkarrizketa bezala ikusi daiteke. Gizabanakoak musika sentitzean gorputz-mugimenduak egiten ditu, hortaz, bere gorputza bitarteko bat baino gehiago da, hain zuzen, funtzio motorretan, irudimen musikalean eta bere gorputzaz duen kontzientzian oinarritutako adierazpen modu bat (Fink-Jensen, 2007).



### 2.2.2 Ikasleen garapen integralean musikak duen garrantzia

Hainbat ikerketek musikak umearen garapenean eragiten duen elementu bat dela baieztatu dute. Eragin horrek, batez ere, alderdi psikomotorrean, kognitiboan eta emozionalean ematen da. Hori horrela, musikak arestian aipatutako alderdietan nola eragiten duen modu sakonago batean azalduko da orain.

- Alderdi psikomotorrean

Musikaren eta motrizitatearen arteko lotura estu bat dago, izan ere, hezkuntza musikala gorputza eta mugimendu barik ezin da garatu eta motrizitateak musika, ahotsa eta instrumentu musikalak behar ditu (García, 2014).

Musikarekin batera haurra bere gorputzarekin eraiki ahal dituen mugimendu ezberdinak garatu eta sortzeko gai den soinuak ezagutzen ditu. Honi esker, umea progresiboki bere gorputz-eskemaren kontzientzia hartzen doa eta bere buruarekiko irudi osatuago bat eraikitzen du. Honetaz gain, musikarekin batera haurra erritmoa, espazioa eta denboraren nozioa garatzen du baita beste pertsonetikiko bere posizioa zein den ere.

Bestalde, abestiak Haur Hezkuntza etapan ematen den lehenengo ekintza musikal gisa hartu daiteke. Abestien bidez, ikasleek haien gaitasun motorrak izugarri garatzen dira, hala nola, saltoak, birak, korrika egin... Gainera, norabideak eta lateralitatea ere lantzen da: aurrean, atzean, aldera batera, bestera, eskuma, ezker... (Ceular, 2009).

- Alderdi kognitiboan

Musikaren eraginez, musika eta adimena aldi berean garatzen diren heinean, haurra bere eskema mentalak modu errazago batean antolatzen ditu, (Bernal, 2000). Era berean, musikak zentzumenak garatzen laguntzen du, horregatik, gaitasun kognitiboak indartzen dituela baieztatu daiteke.

Hizkuntzaren garapenari dagokionez, musikak ere honi mesede egiten dio. Hizkuntza eta musika harremanetan daude, izan ere, bai soinu musikalak bai hizkuntzaren soinuak, komunikazioa dute helburu nagusi (Vilar, 2004). Gizakiak ahoko

hizkuntza eta musikala ditu eta biak soinua erabiltzen dute komunikatu nahi duten hori helarazteko.

Hizkuntzaren garapenean laguntzeko, abestiak bitartekari egokia dira, hauekin batera haurrak hiztegi berria ikasteaz gain, intonazioa, artikulazioa eta bokalizazioan trebatzen direlako (García, 2014). Halaber, abestiekin memorizazioa ere jorratzen da abestien letra lantzearen bidez. Garrantzitsua da abesti hauen irakasketa prozesuan keinuak eta mugimenduak txertatzea, abesti bat irakasteko modu eraginkorrena, motibazioa sustatuz eta jolasen bitartez izaten delako (Ceular, 2009).

- Alderdi emozionalean

Musikak, besteak beste, emozioak eta sentimenduak igortzen dituen bitartekari bat da. Hala ere, emozioak eta sentimenduak helarazteaz gain, edozein gauza aditzera emateko lagungarria da gizakiarentzat. Haurraren lehenengo urteetan, musikak komunikatzen eta emozioak edo sentimenduak adierazten laguntzen dio haurrari.

Ildo beretik, musika sozializazioan ere laguntzen duen bitartekari bat dela esan daiteke, honi esker, haurra beste umeekin, familiarekin, irakasleekin... erlazionatzen da. Gainera, musikak sormena eta originaltasunean laguntzen du, honen bitartez umea adierazteko, bere ideiak partekatzeko, pentsatzeko modu ezberdinak ezagutzen dituelako (García, 2014).

### 2.3 Musikotrizitatea

Musikotrizitateari eskainitako atal honek eskatzen duen fundamentazio teorikoa gauzatzea erronka handia izan da, izan ere, oraindik nahiko berria den diziplina baten aurrean gaude. Hori horrela, adituek gaiaren inguruan duten iritzia jakitea ezinezkoa izan zait eta topatu dudana informazio eskasa ez dut guztiz fidagarria sentitu.

Hala ere, musikotrizitateak musika eta mugimenduaren fusioan du oinarri, beraz, bi hauen lanketa aztertzen duten zenbait artikulatu arakaturik, atal honek behar duen teoria sortzeko gai izan naiz.

Musikotrizitatea musika eta gorputz espresioaren arteko diziplina da. Honen helburu nagusia haurraren gorputza heztea da, haurra musikan heziz.

Musikotrizitatearen helburua beraz, haurra musikarekin zuzenean harremanetan jartzea dela argi dago.

Diziplina honen bidez, besteak beste, motrizitate finean zein lodian hobekuntzak egin daitezke, prozesu positiboak erakuts daitezke albokotasunean eta hainbat gaitasunen garapenean onurak ekarri ditzake. Hori horrela, haurrak txikiak direnetik musikotrizitatearekin harremanetan jartzea gomendagarria da.

Kontzeptu berritzaile hau betiko psikomotrizitatearekin alderatuz gero, psikomotrizitatean musika erabiltzea aukerakoa izan ohi den bitartean, musikotrizitatean ezinbestekoa bihurtzen da. Hori horrela, psikomotrizitateak mugimenduaren bidez haurraren zenbait alderdien garapena bilatzen duela esan daiteke, eta musikotrizitateak, berriz, haurraren garapena ere bilatzen du, baina ez soilik mugimenduaren bidez, baizik eta musikaren eta mugimenduaren arteko fusioaren bitartez.

### 3. Proposamena eta esku-hartzea

Atal honetan, aurrera eramandako musikotrizitatearen inguruko esku-hartzea azalduko da. Horretarako, eman beharreko informazioa azpiatal ezberdinetan antolatuta agertuko da azalpenak modu argi eta koherente batean eskaintzeko asmoz.

#### 3.1 Sarrera eta justifikazioa

Esku-hartzean sakontzen hasi baino lehen, honen justifikazioa egitea aproposa izango litzateke. Era honetan, kokatzea eta lana testuinguru baten barruan ulertzea errazagoa izango delako.

Adin txikiko hurrekin musikotrizitatearen lanketa jorratzea helburu gisatzat duen esku-hartze honek, Maristak Zalla Ikastetxean aurrera eramana da, zehazki, bi urteko gelan. Itunpeko ikastetxe bat da non ikasleen garapen integrala lortzea premiazkoa bilakatzen da. Ikastetxe honen hezkuntza-eskaintza 0-16 urte bitartekoa da, hots, Haur Eskolatik DBHra.

Maristak Zalla Ikastetxeak jarraitzen duen metodologiari helduz, ikaskuntza kooperatiboan oinarritzen da. Hori horrela, talde-lanari eta ikasleen arteko elkar eraginari garrantzia handia ematen diote. Honetaz gain, hezkuntza-berrikuntzak ere presentzia handia du zentro honetan, IKT-ak ikasteko tresna gisa erabiltzen direlako maiz.

Musikotrizitatearen inguruan informazioa jaso eta honen inguruan gehiago jakin ondoren, esku-hartzea bi urteko gelan egitea erabaki zen. Diziplina berritzaile honen helburu nagusia musikaren bitartez haurraren gorputza heztea da eta honen laketaren bitartez lortzen diren onurak oso beharrezkoak dira. Hortaz, txiki-txikiak direnetik mugimenduaren eta musikaren arteko fusioaren bidez haien gorputza heztea oso beharrezkoa ikustearekin batera, esku-hartzea 2-3 adin tarteko hurrekin aurrera eramatea bermatu zen.

### 3.2 Oinarrizko konpetentziak

JARDUERAK	OINARRIZKO KONPETENTZIAK	
	OINARRIZKO ZEHAR KONPETENTZIAK	OINARRIZKO DIZIPLINA ARTEKO KONPETENTZIAK
<b>Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia.</li> <li>• Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</li> <li>• Elkarbizitzarako konpetentzia.</li> <li>• Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.</li> <li>• Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia motorra.</li> </ul>
<b>Masaje sentsozialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarbizitzarako konpetentzia.</li> <li>• Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia motorra.</li> </ul>
<b>Animalien zirkuitua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia.</li> <li>• Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</li> <li>• Elkarbizitzarako konpetentzia.</li> <li>• Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.</li> <li>• Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia motorra.</li> </ul>
<b>Katu-yoga</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.</li> <li>• Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia motorra.</li> <li>• Teknologiarako konpetentzia.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarbizitzarako konpetentzia.</li> <li>• Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.</li> <li>• Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	
<b>Ipuin motore musikatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia.</li> <li>• Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</li> <li>• Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.</li> <li>• Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia motorra.</li> <li>• Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.</li> </ul>
<b>Koreografia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia.</li> <li>• Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</li> <li>• Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.</li> <li>• Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia motorra.</li> </ul>
<b>Muralak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia.</li> <li>• Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</li> <li>• Elkarbizitzarako konpetentzia.</li> <li>• Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.</li> <li>• Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konpetentzia motorra.</li> <li>• Arterako konpetentzia.</li> </ul>

### 3.3 Helburua

Musikotrizitatearen inguruko esku-hartze hau diseinatzen hasi aurretik, proposamenarekin lortu nahi zena zehaztu behar zen. Hori horrela, helburu nagusi bat finkatu, eta honen arabera, saio bakoitza osatuko zuten jarduerak forma hartzen joan ziren. Musikotrizitatea nahiko berria da oraindik, beraz, betidanik jorratu den psikomotrizitatea, berritzaileagoa den diziplina batez ordezkatzeari interesgarria izango litzateke hezkuntza eguneratze aldera.

Behin musikotrizitateak dituen onurak ezagututa, ikasleek onura hauen jabekuntzan trebatzeko esku-hartze bat prestatu da. Era berean, mugimendua eta musikaren fusioaren bitartez, haurren garapenean funtsezkoak diren zenbait alderdien lanketa ematen da.



### 3.4 Jarduerak




Esku-hartze honek zazpi jarduera ezberdin osatzen dute: musikaren altuera eta intentsitatea lantzen duen errutina, masaje sensorialak, animalien zirkuitua, katu-yoga, ipuin motore musikatua, koreografia eta muralak. Jarraian, jarduera hauek guztiak azalduko dira eta bakoitzaren gauzapenerako erabili den metodologia ere zehaztuko da.

### 3.4.1 Jardueren azalpena

JARDUERA	DESKRIPZIOA	ARGAZKIAK
<p><b>Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina</b></p>	<p>Musikaren altueran eta intentsitatean trebatuko dira haurrak, mugimenduak bi faktore hauen araberakoak izango direlakoan. Pixkanaka ikasiko duten zerbait da, hots, saio bakoitzean errutina birritan egingo da, honen konplexutasuna handituz joaten den heinean. mugimenduak behatsetik, imitatzeraz igaroko dira, errutina modu autonomoan egitea lortu arte. Jorratuko diren mugimenduak ondorengoak dira: eskuak mugitzea, besoak altxatzea eta jaistea, beso bat gora eta bestea behera eta alderantziz, pausu bat aurrera eta atzera, albo batera eta bestera...</p>	
<p><b>Masaje sentsorialak</b></p>	<p>Bikoteka jarrita, masajea emango diote elkarri material ezberdinak erabilita. Horrela, hainbat testura antzemateko aukera izango dute. Behin bikotekide batek masajea jasota, rolak aldatuko dira eta kideari egingo dio. Ariketarekin hasi aurretik, masajea emango duten material ezberdinekin esperimintatzeko aukera izango dute.</p>	



<p><b>Animalien zirkuitua</b></p>	<p>Erritmo azkarra duen musika jarrita, haurrak lau animalia ezberdinen (sugea, katua, txoria eta untxia) mugimenduak irudikatzen dituzten lekualdaketak gauzatu behar dituzte. Horretarako, psikomotrizitateko zenbait material aurkeztuko dira zirkuitu baten funtzionamendua mantenduz. Musikak funtzio garrantzitsu bat du, izan ere, musika entzuten den bitartean zirkuitua egin behar dute, eta gelditzean, ordea, dauden tokian gelditu eta egiten ari diren lekualdaketa zein animaliarri dagokion aitortuz.</p>	
<p><b>Katu-yoga</b></p>	<p>Ariketa honetan, erlaxatzeko postura ezberdinak irudikatzen dituzten katu batzuen irudiak jarriko dira arbel digitalean. Postura bakoitza egin baino lehen, irakasleak postura osatzeko eman behar diren urratsak azalduko dizkie ikasleek imitazioaren bidez postura bakoitza osatu arte. Jardueran zehar, haurrak musika lasaia entzuten egongo dira sudurretik arnasa hartzean eta ahotik botatzean datzan arnasketa lasaia mantentzen saiatuz. Antolakuntzari dagokionez, postura batzuk banaka egingo dituzte, eta besteak, ordea, binaka.</p>	

<p><b>Ipuin motore musikatua</b></p>	<p>Musika tresnak erabilia eta mugimendu ezberdinak eginez, istorio bat kontatuko da. Era berean, bi saioetan gauzatuko den ariketa da, umeei ipuina ondo ezagutu dezaten. Ikasleei jardueran parte-hartze aktiboa izateko aukera eskainiko zaie, beraz, motibazioa sustatzeko beharra dago.</p>	
<p><b>Koreografia</b></p>	<p><i>O Bugi Bugi</i> abestia erabilia, nahiko sinpleak diren mugimenduez osatutako koreografia labur bat gauzatuko dute haurrek. Koreografia osatzen duten mugimendu hauek errazago barneratzeko, musikarekin batera dantzatu baino lehen, ikasleek irakaslearekin mugimenduak ezagutuko dituzte. Horrela, haientzat berriak diren mugimendu hauek ezagutzen hasiko dira.</p>	
<p><b>Muralak</b></p>	<p>Haurrek bi mural ezberdin egingo dituzte modu aske batean, bata musika alaia erabiliz, eta bestea, aldiz, musika lasaia edo tristearekin. Bi mural hauek egiteko, kolore berdinak eskainiko zaizkie hurrei, horrela, musika motaren arabera kolore biziak edo ilunak erabiltzen ahal dituzten aztertu daiteke.</p>	

### 3.5 Metodologia

Esku-hartzea osatzen duten jarduerak gauzatzeko orduan, metodologia ezberdinak aintzat hartu ziren. Elkarlanean aritzea eskatzen duten jardueren kasuan, Maristak Zalla Ikastetxeak jarraitzen duen metodologia erabili zen, ikasketa kooperatiboan oinarritzen dena. Ikaskuntza kooperatiboa termino generiko bat da, ikasgela talde txiki, misto eta heterogeneoetan antolatzetik abiatzen den irakaskuntza-prozeduren talde bati erreferentzia egiteko erabiltzen dena. Ikasleek elkarrekin lan egiten dute zeregin akademikoak ebazteko eta beren ikaskuntzan sakontzeko helburuarekin.

Kooperazioa helburu komunak lortzeko elkarrekin lan egitean datza. Kooperazio egoera batean, gizabanakoak bere buruarentzat eta gainontzeko taldekideentzat onuragarriak diren emaitzak lortzen saiatzen da. Era berean, ikaskuntza kooperatiboa talde txikien erabilera didaktikoa da, eta hauetan, ikasleek elkarrekin lan egiten dute haien ikaskuntza eta gainerakoena maximizatzeko helburuarekin. Hortaz, metodo hau ikaskuntza lehiakorarekin kontrastatzen dela esaten da (Johnson, Johnson eta Holubec, 1999).

Ikaskuntza kooperatiboan oinarritzen den metodologia erabiltzeaz gain, psikomotrizitatearen inguruan beste autore batzuk egindako ekarpenak ere aintzat hartu dira, zehazki, Aucouturier eta Emmi Pikler.

Lehenengo autoreari helduz, presentzia handiagoa izan du esku-hartzeko jarduerak diseinatzeko orduan, izan ere, kooperazioa nagusitzen ez den jarduera guztietan Aucouturierren printzipioak jarraitzen dira. Bernard Aucouturierrek "Práctica Psicomotriz Aucouturier" sortu zuen. Horren ondorioz, haurren garapena eta heldutasun-prozesua ikuspuntu dialektiko, dinamiko eta integral batetik ulertzeko gai izan zen (Fernández, 2014).

Praktika psikomotorrak haurren heldutasun integrala bide sentsorimotorraren bidez lehenesten duen printzipioa da. Ikuspegi honen barruan esaten da haurren garapen etapa zehatz batean, mugimenduari eta bere gorputzarekin esperimentatzeari esker, bere pentsamendu propioa eraikitzen duela (Fernández, 2014). Hori horrela, Aucouturierren helburu nagusia haurra bat-bateko jolasaren bidez sentitzen duen plazerretik abiatuz, garatzea, heltzea eta ingurunera egokitzen ikastea dela esan daiteke.

Diseinatutako jardueri dagokionez, haurren garapena bermatzen duen zenbait alderdien lanketa jorratzen dute. Haurra jolas baten moduan ulertzen ditu gauzatutako jarduerak, beraz, jolas honek transmititzen dion gozamenetik abiatuz, abilezi eta gaitasun berriak eskuratzen joaten da. Hortaz, Aucouturierrek aldarrikatzen duen bezala, praktika psikomotorren bidez, haurra heldutasun integrala bereganatzen doa.

Arestian aipatu den bezala, Emmi Piklerren metodologia ere kontuan hartu izan da esku-hartze honetan. Lau saiotik bi musika triste eta alaia entzutearekin batera eraiki beharreko muralaren jarduerarekin itxi dira. Ariketa hau egiterako orduan, haurrak askeak dira musikaren entzuketarekin nahi, sentitzen edo behar zutena tenperekin adierazteko. Hori horrela, ez zegoen inolako jarraibiderik, irakasleak behatzaile rola hartzen du testuinguru egokia mantentzen saiatzen den bitartean.

Helduaren esku-hartze eskas hau sustatzen duen aditua Pikler da. Honen esanetan, haurrari testuinguru eta baliabide egokiak eskainiz gero, umea bere gaitasun propioak ditu modu autonomo batean garatzen joateko. Era berean, atxikimendu irudiak haurren behar afektiboak asetu behar ditu, azkenengo honek askatasunez mugitzeko beharrezkoa duen segurtasuna bereganatu ahal izateko (Godall, 2010).

JARDUERA	METODOLOGIA
<b>Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina</b>	Aucouturier
<b>Masaje sentsorialak</b>	Ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako metodologia.
<b>Animalien zirkuitua</b>	Aucouturier
<b>Katu-yoga</b>	Ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako metodologia.
<b>Ipuin motore musikatua</b>	Aucouturier
<b>Koreografia</b>	Aucouturier
<b>Muralak</b>	Aucouturier eta Emmi Pikler

### 3.6 Saioak

Azpiatal honetan, saioen inguruko informazioa aurkeztuko da. Musikotrizitatean oinarritzen den esku-hartze honek, lau saio osatzen dute. Hauen inguruko informazio orokorra emateaz gain, saioen eta jardueren zehaztapenak eskainiko dira, baita lehenengoak gauzatzeko jarraitutako prozedura ere. Informazio hori guztia, tauletan antolatuko da bisualago izateko asmoarekin.

#### 3.6.1 Saioen sekuentzia

SAIO ZENBAKIA	HELBURUA	JARDUERAK
1	Saio honetan musikotrizitatearekin lehengo harremana eraikiko da, hortaz, gainontzeko saioetan landuko den errutina ezagutzeaz gain, masajeen bidez esperimendazio sentsoriala jorratuko da musikak egindako mugimenduetan duen eragina behatuz. Era berean, muralaren ariketan, musikak arte plastikoetan sormena lantzen nola laguntzen duen aztertuko da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina.</li> <li>• Masaje sentsorialak.</li> <li>• Murala musika alaiarekin.</li> </ul>
2	Bigarren saio honetan, ordea, diziplina berritzaile honen irudi xumea izango dute jada. Horregatik, errutina bigarren aldiz egingo da gauzatu beharreko mugimenduak hobeto ezagututa. Aktiboagoa den jarduera bat jorratu nahian, saio honen barruan zirkuitua agertzen da musikotrizitateak mugikortasun handiagoa eskatzen duten jarduerak ere bere baitan gordetzen dituela adierazteko. Oraingo honetan, murala musika tristearekin eraikitzen da, musika mota ezberdinak sormenean duen eragina aztertzeko xedearekin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina.</li> <li>• Animalien zirkuitua.</li> <li>• Murala musika tristearekin.</li> </ul>
3	Musikotrizitatearekiko harremana estutzen doala aprobetxatuz, errutinan egin beharreko mugimendu berriak agertzen dira eta jardueraren konplexutasuna handituz doa. Diziplina honek gure emozioekin oso lotuta dagoela baieztatzeko, yoga moduko bat egiten da musikak nola gure gorputza lasaitzen laguntzen digun erakutsiz. Musika entzuteaz gain	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina.</li> <li>• Katu-yoga.</li> </ul>

	sortu ere egin dezakegula ikasteko, zenbait musika-tresna erabilia, istorio bat kontatzen da. Gainera, istorioan zehar agertzen diren lekualdaketak modu aktiboan erreproduzitzen ditugu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipuin motore musikatua.</li> </ul>
4	Esku-hartzeari itxiera emateko, errutina azkenengo aldiz egiten da jarduera honek dituen helburuak betez. Mugimenduak batzuetan sekuentzia bat jarraitzen dutela ikasteko, koreografia labur bat gauzatzen da. Mugimenduek orden bat dutela ikasi eta orden hori buruz ikasten saiatzeaz gain, musikaren printzipioek dantzan duten eragina esperientziatzen dute. Ipuinaren kasuan, bigarren aldia izatean, parte-hartze aktiboagoa espero da jarduera honekin lortu nahi diren helburuak modu bidegarriagoan eskuratzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina.</li> <li>• Koreografia.</li> <li>• Ipuin motore musikatua.</li> </ul>

### 3.6.2 Saioen fitxa

DATA	SAIO ZENBAKIA	IKASLE ZENBAKIA	JARDUERAK
2020ko urtarrilak 14	1	17	1. Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina. 2. Masaje sentsorialak. 3. Murala musika alaiarekin.
BALIABIDEAK	ANTOLAMENDUA	IRAUPENA	
1. Musika erreproduzitzeko gailua. 2. Musika lasaia eta testura ezberdinekin egindako materiala, esaterako, plastikozko poltsak, lumak, lanbasa zatiak eta lastoaren antza duen materiala. 3. Tenperak, paper jarraitua eta musika.	1. Lurrean borobilean eserita. 2. Bikoteka lurrean eserita. 3. Lurrean paper jarraituaren inguruan eserita.	1. 10-15 minutu. 2. 15 minutu inguru. 3. 10 minutu.  <b>Saioa guztira: 30-40 minutu.</b>	

## HELBURUAK

- Musikaren altuera eta intentsitatea ezberdinak ezagutzea.
- Mugimenduak musikaren gorabeherekin koordinatzea.
- Saioari hasiera emateko errutina dela ulertzea.
- Ikasleak entzumen musikalean trebatzea.
- Material ezberdinak ezagutzea.
- Material ezberdinen testurak probatzea.
- Bikoteka lan egiten ikastea.
- Musikarekin lasaitzea.
- Estimulazio sentsoriala garatzea.
- Ukimena estimulatzea.
- Musika mota ezberdinak ezagutzea.
- Arte plastikoetan musikak duen eragina antzematea.
- Arte plastikoetan trebatzea.
- Psikomotrizitate fina lantzea.
- Irudimena eta sormena garatzea.

## EDUKIAK

- Hitzezko eta hitzez gabeko kodeak ulertu eta interpretatzen jakitea.
- Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoa).
- Ideiak sortzea (pentsamendu sortzailea).
- Besteen sentimenduak, nahiak eta pentsamenduak kontuan izatea eta adi entzutea.
- Taldean ikastea eta lan egitea.
- Gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.
- Norbanakoaren autorregulazioa.
- Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea.

- Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko.
- Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.
- Gorputza naturaltasunez edo intentzior erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

DATA	SAIO ZENBAKIA	IKASLE ZENBAKIA	JARDUERAK
2020ko urtarrilak 15	2	16	1. Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina. 2. Animalien zirkuitua. 3. Murala musika tristearekin.
BALIABIDEAK	ANTOLAMENDUA		IRAUPENA
1. Musika erreproduzitzeko gailua. 2. Psikomotrizitateko materiala: tunela, uztailak, barra batzuk eta oreka mantentzeko egurrezko egitura bat. 3. Musika, tenperak eta paper jarraitua.	1. Lurrean borobilean eserita. 2. Gelatik borobil forman antolatutako materialak zirkuitu bat simulatuz. 3. Lurrean paper jarraituaren inguruan eserita.		1. 10-15 minutu. 2. 15 minutu inguru. 3. 10 minutu.  <b>Saioa guztira: 30-40 minutu.</b>
HELBURUAK			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikaren altuera eta intentsitatea ezberdinak ezagutzea.</li> <li>• Mugimenduak musikaren gorabeherekin koordinatzea.</li> <li>• Saioari hasiera emateko errutina dela ulertzea.</li> <li>• Ikasleak entzumen musikalean trebatzea.</li> </ul>			



- Motrizitatean trebatzea.
- Lekualdaketa ezberdinak ezagutu.
- Bi elementuen arteko loturak edo erlazioak egitea.
- Soinua eta isiltasuna bereiztea.
- Txandak errespetatzea.
- Musika mota ezberdinak ezagutzea.
- Arte plastikoetan musikak duen eragina antzematea.
- Arte plastikoetan trebatzea.
- Psikomotrizitate fina lantzea.
- Irudimena eta sormena garatzea.

## EDUKIAK

- Hitzezko eta hitzez gabeko kodeak ulertu eta interpretatzen jakitea.
- Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoa).
- Ideiak sortzea (pentsamendu sortzailea).
- Besteen sentimenduak, nahiak eta pentsamenduak kontuan izatea eta adi entzutea.
- Taldean ikastea eta lan egitea.
- Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.
- Norbanakoaren autorregulazioa.
- Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea.
- Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko.
- Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.
- Gorputza naturaltasunez edo intentzior erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

DATA	SAIO ZENBAKIA	IKASLE ZENBAKIA	JARDUERAK
2020ko urtarrilak 16	3	17	1. Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina. 2. Katu-yoga. 3. Ipuin motore musikatua.
BALIABIDEAK	ANTOLAMENDUA		IRAUPENA
1. Musika erreproduzitzeko gailua. 2. Musika lasaia eta arbel digitala. 3. Musika-tresnak: marakak, makilak eta txirula.	1. Lurrean borobilean eserita. 2. Arbel digitalaren aurrean (banaka edo binaka), betiere, irakaslea ikusgai dagoen toki matean mantenduz. 3. Ikasleak hormaren kontra eseriko dira eta hezitzailea, ordea, guztien aurrean zutik.		1. 10-15 minutu 2. 15 minutu inguru 3. 10 minutu  <b>Saioa guztira: 30-40 minutu.</b>
HELBURUAK			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikaren altuera eta intentsitatea ezberdinak ezagutzea.</li> <li>• Mugimenduak musikaren gorabeherekin koordinatzea.</li> <li>• Saioari hasiera emateko errutina dela ulertzea.</li> <li>• Ikasleak entzumen musikalean trebatzea.</li> <li>• Motrizitatean trebatzea.</li> <li>• Norberaren burua beste batenarekin identifikatzea eta imitatzen ikastea.</li> <li>• Arnasketa kontrolatu bat mantentzen ikastea.</li> <li>• Erlaxazioa eta honek dituen onurak ezagutzea.</li> <li>• Atentzioa eta kontzentrazioa mantentzen ikastea.</li> <li>• Gorputz adierazpena hobetzea.</li> <li>• Norberaren kontrola izatea.</li> <li>• Norberaren burua hobeto ezagutzea.</li> </ul>			

- Ahozko hizkuntzan trebatzea.
- Musika tresna ezberdinak ezagutzea.
- Haurraren sormen eta adierazpen gaitasuna garatzea, hitzez esaten ari dena gorputzaren bidez interpretatuz.

### EDUKIAK

- Hitzezko eta hitzez gabeko kodeak ulertu eta interpretatzen jakitea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguruan erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.
- Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoa).
- Idatzizko testuak entzun (literaturarekin harremanetan hasi).
- Ideiak sortzea (pentsamendu sortzailea).
- Besteen sentimenduak, nahiak eta pentsamenduak kontuan izatea eta adi entzutea.
- Taldean ikastea eta lan egitea.
- Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.
- Norbanakoaren autorregulazioa.
- Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.
- Gorputza naturaltasunez edo intentzior erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

DATA	SAIO ZENBAKIA	IKASLE ZENBAKIA	JARDUERAK
2020 urtarrilak 17	4	18	1. Musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina 2. Koreografia 3. Ipuin motore musikatua

BALIABIDEAK	ANTOLAMENDUA	IRAUPENA
1. Musika erreproduzitzeko gailua. 2. Musika alaia ( <i>O Bugi Bugi</i> abestia). 3. Musika-tresnak: marakak, makilak eta txirula.	1. Lurrean borobilean eserita. 2. Haurrak zutik jarriko eta irakaslea haien aurrean jarduera gidatzeko. 3. Ikasleak hormaren kontra eseriko dira eta hezitzailea, ordea, guztien aurrean zutik.	1. 10-15 minutu 2. 10 minutu 3. 10 minutu  <b>Saioa guztira: 25-35 minutu.</b>
HELBURUAK		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikaren altuera eta intentsitatea ezberdinak ezagutzea.</li> <li>• Mugimenduak musikaren gorabeherekin koordinatzea.</li> <li>• Saioari hasiera emateko errutina dela ulertzea.</li> <li>• Ikasleak entzumen musikalean trebatzea.</li> <li>• Motrizitatean trebatzea.</li> <li>• Norberaren oinarriko adierazpen-baliabideez jabetzea.</li> <li>• Gaitasun sinbolikoa garatzea.</li> <li>• Imitatzen ikastea.</li> <li>• Mugimenduak sekuentzia baten barruan ezagutu.</li> <li>• Memoria landu.</li> <li>• Mugimenduan berezkotasuna eta sormena garatzea.</li> <li>• Mugimendu espresiboaren aukerak esperimintatzea eta erritmoarekin duen harremana aztertzea.</li> <li>• Ahozko hizkuntzan trebatzea.</li> <li>• Musika tresna ezberdinak ezagutzea.</li> <li>• Haurraren sormen eta adierazpen gaitasuna garatzea, hitzez esaten ari dena gorputzaren bidez interpretatuz.</li> </ul>		
EDUKIAK		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzezko eta hitzez gabeko kodeak ulertu eta interpretatzen jakitea.</li> <li>• Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoa).</li> <li>• Idatzizko testuak entzun (literaturarekin harremanetan hasi).</li> </ul>		

- Ideiak sortzea (pentsamendu sortzailea).
- Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.
- Norbanakoaren autorregulazioa.
- Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.
- Gorputza naturaltasunez edo intentzior erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

### 3.6.3 Prozedura

Esku-hartzea osatzen duten saio hauek, lau egunetan zehar gauzatu ziren, zehazki, urtarrilaren 14-tik 17-rako epean. Saio guzti hauen lehenengo jarduera musikaren altuera eta intentsitatean trebatzeko errutina zen. Beraz, errutina bezala ulertzeko eta ariketa honen helburuak errazago lortzeko, saio batetik bestera atseden hartzeko egunik ez ustea egokia izango litzateke.

Era berean, lau saio hauei hasiera emateko errutina erabili den bezala, tartetxo hauei itxiera emateko asmoz, jarduera lasaiak aukeratu dira, horrela, umeek ekintza berrien aurrean sentitzen duten ezinegona baretzen laguntzeko. Jarduera lasai horiek ondorengoak dira: bi muralak eta ipuin motorea.

Saio guztiak hiru jarduera ezberdin osatzen dituzte eta jarduera horien ordena zehazteko, hauen ezaugarriak aintzat izan dira. Lehen azaldu dudan bezala, lau saioen lehenengo jarduera errutina izan da, eta hauei amaiera emateko, ordea, lasaiak direnak txertatu ditut, baina saioen bigarren ariketak beti izan dira mugituenak. Hori horrela, lau saio hauek progresio bat jarraitzen dute, errutinarekin hasi, aktibitate gehiago eskatzen duen jarduera batekin jarraitu eta ariketa lasaiekin bukatu.

Saioen iraupenari dagokionez, gutxi gorabehera, ordu erdiko saioak izango dira. Haur Hezkuntzan programazio zurrun bat jarraitzea ezinezkoa den heinean, ikasleen beharrak kontuan izanda malgutasunez jokatzeko premia bilakatzen da.

### 3.7 Ebaluazioa

Saio bakoitzaren baitan planteatuta zeuden helburuak lortu direla ziurtatzeko, ondoren agertzen den txantiloia garatu da, bertan agertzen diren lorpen-adierazleak ebaluatzen diren heinean. Ebaluazioa zehatzagoa izateko, haurraren garapenean eragina duten zenbait alderdiei erreparatzeko beharra dago, hala nola, soziala, kognitiboa, afektiboa eta motorra. Era honetan, esku-hartzeak ikasleengan izandako efektua modu sakon batean aztertuko da:

	BETI	ASKOTAN	BATZUETAN	INOIZ	OHARRAK
<b>ALDERDI SOZIALA</b>					
Besteekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna adierazten dute.			X		Oraindik jolas paralelo nagusitzen da.
Eskaintzen zaizkien materialak partekatzeko gai dira.			X		Itxarotea kostatzen zaie, nahi dute momentuan bertan.
Txandak errespetatzen dituzte.			X		Berehalakotasuna.
Zenbait egoeratan besteekiko agresibitatea erakusten dute.		X			Haien burua auto erregulatzeko zailtasunak.
Talde lanean aritzeko jarrera baikorra adierazten dute.			X		Bakarka aritzea nahiago dute.
Kide batek laguntza behar duela nabaritzean, laguntza eskaintzen diote.			X		Horrelakoetan, gutxi dira helduaren jarrera imitatzen saiatzen direnak.

Gainontzeko hurrekin harremanak eraikitzeko ahalmena erakusten dute.	X			
Helduaren aginduak errespetatzen eta aintzat hartzen dituzte.		X		
Helduaren onespena bilatzen dute.	X			
Helduarekin elkarlanean aritzeko gaitasuna adierazten dute.	X			
<b>ALDERDI KOGNITIBOA</b>				
Gorputz atalen izenak entzutean izendatutako atal hori norberarengan identifikatzeko gai dira.	X			Gutxitan heldua behatzea behar dute.
Mugimenduen ordena gogoratzeko gai dira.		X		Mugimenduak zeintzuk diren bai, ordena gogoratzea zailagoa.
Musikaren altuera eta intentsitate ezberdinak mugimendu ezberdinekin lotzeko gai dira.			X	
Mugimenduak behatzeko, eta gero, hauek imitatzeko gai dira.	X			
Gorputz atal bakoitzaren funtzioa ezagutzen dute.	X			
<b>ALDERDI AFEKTIBOA</b>				
Musikak emozioengan duen eragina nabaritzen dute.	X			
Momentuan sentitzen dutena aditzera ematen dute.	X			
Segurtasunez jarduten dute.	X			
Ekintza edo egoera berrien aurrean interesa adierazten dute.	X			Asko motibatzen dira.
Konplexuagoak diren aspektuetan, hobetzeko saiakerak egiten dituzte.	X			
<b>ALDERDI MOTORRA</b>				
Birak emateko gai dira.	X			

Saltoak emateko gai dira.			X		Txikiagoak direnak oraindik ez dakite.
Lekualdaketa sinpleak egiteko gai dira (lekuan ibili, korrika egin...).	X				
Motrizitate finean trebatzen hasten dira.		X			Batzuetan objektuak manipulatzeko arazoak.
Mugimendu koordinatuak egiteko gai dira.		X			Oso sinpleak direnak.
Oreka mantentzeko gai dira.			X		
Lateralitatea definituta izatea eskatzen duten mugimenduak modu arrakastatsu batean (dituzten gaitasunak kontuan izanda) gauzatzen dituzte.			X		Irakaslearen andamiajea nabaria da.
Txaloak emateko gai dira.	X				
Eskuekin eta besoekin egin beharreko mugimenduak era egokian egiten dituzte.			X		
Hankekin egin beharreko mugimenduak era egokian egiten dituzte.			X		



### 3.7.1 Ebaluazio-txantiloia emaitzak

Txertatutako aurreko ebaluazio-txantiloia honetan, esku-hartze hau osatzen duten jardueretan psikomotrizitateak bere baitan hartzen dituen alderdi ezberdinak nola landu diren aztertzen da. Horretarako, taldea osotasunean hartuz, alderdi bakoitzari dagokion item-ak zehaztu dira, bakoitzak baloratzeko (beti, askotan, batzuetan eta inoiz) eskala erabiliz. Era berean, oharrentzako zutabe bat sortu da beharrezkoak diren argibideak zehazteko asmoz.

Alderdi sozialaren barruan, haurrak berdinen arteko eta helduarekiko harremana baloratzeko item-ak ezberdintzen dira. Berdinen arteko harremanari erreparatuz, argi ikusi daiteke nola gainontzeko hurrekin harremana eraikitze saiakerak egiten dituzten, baina aldi berean, hauekin modu egoki batean elkar eragiteko oraindik prest ez dauden.

Ikasleek helduarekiko eraikitzen duten harremanari helduz, haientzako erreferentzia irudizat hartzen duten pertsonaren onespina lortzea zein garrantzitsua den baieztatzen da txantiloia honetan. Hala ere, nahiz eta helduarekin elkar eragiteko gaitasuna erakutsi, azken honen aginduak betetzeko ahalmena eskasa da. Bi urterekin haien burua erregulatzeko zailtasunak izaten dituzte, beraz, zenbait momentutan haiengandik espero dena eta jasotakoa ez du bat egiten.

Landutako zazpi jarduera hauetan, alderdi kognitiboa zenbait aspektutan jorratu egin da. Esku-hartze honi esker, haien gorputzaren kontzientzia izaten ikasteko aukera izan dute, izan ere, gorputz-atal ezberdinekin ariketak egin dira honako bakoitzak gauzatu ditzakeen mugimenduetan trebatuz. Era berean, musikotrizitatean oinarritutako esku-hartzea den heinean, musika eta mugimendua harremanetan jarri dute horrek eskatzen duen gaitasun kognitiboak martxan jarri.

Esku-hartzearen ebaluazio sakona egiteko, alderdi afektiboa aztertze beharra dago. Honetan, ikasleek planteatutako jarduera ezberdinen aurrean zer nolako jarrera erakutsi duten jasoko da. Txantiloian ikusten da nola haurrak ekintza berrien aurrean nahiko motibatuta dauden eta gauza berriak ikasteko interesa adierazten duten. Hala ere, oraindik haien emozioak eta sentimenduak kudeatzeko zailtasunak dituzte, baina musikak kudeaketa honetan lagungarria izaten da haientzat.

Aztertutako azken alderdia motorra da. Jarduera guztietan haurrak gaitasun motorrak estimulatu behar izan dituzte hauen hobekuntzan ahalegintzen ziren bitartean. Ebaluazioari esker, mugimendu errazak eta lekualdaketa sinpleak arazorik gabe gauzatzen dituztela ikusten da, hala nola, txaloak, birak, lekuan ibili, korrika egin... Aldi berean, hankekin egin beharrekoak zailtasun maila altuago bat eskatzen dute, adibidez, saltoak. Amaitzeko, oreka mantentzea eta lateralitatean trebatzea eskatzen duten mugimenduak egiteko, helduaren laguntza premiazkoa bilakatzen da.

#### 4. Ondorioak

Ondorioak deituriko atal honetan, gauzatutako lau saioak praktikan nola joan diren azaltzea egokia izan daiteke. Aldi berean, Gradu Amaierako Lan honen hausnarketa pertsonala txertatuko da berria izan den esperientzia honen nondik norakoak azaltzen diren bitartean.

##### 4.1 Saioen balorazioa

Ondorioei eskainitako atal honetan, saioen balorazio orokor bat gauzatzeko azpialal hau sartzea egokia ikusten dut. Modu honetan, esku-hartzea osatzen duten lau saioak nola joan diren aztertzei aukera dago.

Lehenbiziko saio honen balorazio orokorra egiten hasteko, lehenengo jarduera baloratuko da, hain zuzen, musikaren altuera eta intentsitatea lantzeko errutina. Lehenengo jarduera hau birritan egin zen saio bakoitzean, hortaz, jarduera honen balorazioa egiteko, lehenengo txanpa eta bigarrena azalduko dira.

Lehenengo txanpan, jarduerarekin izan zuten lehenengo kontaktua zenez, errutinan zehar egingo ziren mugimenduak aurkeztu ziren, haiek behatzen imitatzerara pasatuz. Ondoren, musikarekin berdina egin zen. Bigarren txanpa iristean, musikarekin batera ariketa gauzatu eta egin beharreko mugimenduak ozen adierazten ziren haurrei segurtasuna helaraziz.

Gehienek, nahiko ondo egin zuten eta mugimendu gehienak problema barik imitatzei gai izan ziren. Hala ere, errutina osatzen duten mugimendu guztiak ez ziren landu batzuk menperatzearekin nahikoa zelako. Era berean, haur batzuen parte-hartzea eskasa izan zela eta behatzaile rola hartzen zuten. Nahiz eta azkenengo hauek motibatzen saiatu, alferrik izan zen. Parte-hartze aktiboa izan zuten artean, mugimendu batzuk barneratuta zituztela antzematen zen, baina hauen ordena nolakoa zen gogoratzeko zailtasun gehiago erakutsi zituzten. Hala ere, bigarren txanpan lehenengoan baino parte-hartze nabariagoa egon zen.

Bigarren jarduera masaje sentsorialak izan. Masajea emateko erabiliko zituzten material ezberdinen aurkezpena egitean, batzuk testura ezberdin hauek ez zituzten ukitu nahi, baina orokorrean esperimentatzeko jakin-mina erakutsi dute.

Masajea ematerako orduan, bikotekide bati materiala ematean bestea emandako materiala izan nahi zuen, hortaz, masajea jaso ondoren txandak aldatuko zirela azalduz konforme gelditzen zirela ematen zuen. Gainera, jarduera hau bikoteka lan egitea eskatzen duenez eta taldeka lan egiteko txikiak direnez gero, izugarri kostatu zitzairen eta haien kabuz aritzea nahiago zuten.

Saioarekin amaitzeko, musika alaia jarriz murala egin zen. Hasiera batean, jarduera honen helburua musika alaia eta tristea entzutean, kolore biziak edo ilunak erabiliko zituzten aztertzea zen, baina ez zen guztiz horrela izan. Musika alaia jartzean, margotzen hasi ahal zutela zekiten, hortaz, edozein kolore hartzen eta nahasten hasi ziren musikari erreparatu gabe. Hala ere, musikak bere funtzioa bete zuelakoan nago, izan ere, alaia izatean erakusten zuten jarrera eta jokatzeko modua nahiko askea eta dibertigarria izan zen.

Bigarren saioari hasiera emateko, errutina bigarren aldiz egin zen. Honetan ere, bi txanpetan banatu zen jarduera eta mugimenduak lehenengo saioan egindako berdinak izan ziren. Lehenengo txanpan, aurreko saioan bigarren txanpa izan zena egin zen, hau da, borobilean eserita, musika jarri eta mugimenduak ozen esanda, behatu eta imitatu. Bigarren txanpan, ordea, mugimendu batzuk ozen adierazi barik, umeek imitatu behar izan zituzten.

Lehenengo txanpan, haurrak mugimendu batzuk barneratuta zituztela antzematen zen nahiz eta ordena oraindik ez mantendu. Bigarrenengan, berriz, egin beharreko mugimendu batzuk ozen ez esatean, motibazioa eta arreta galtzen zutela ematen zuen. Dena den, mugimendu berriak ez txertatzean, jarduera nahiko errepikakorra bilakatu zen. Hori horrela, ondorengo bi saioetan mugimendu berriak sartzea bermatu zen.

Bigarren saio honen hurrengo jarduera animalien zirkuitua izan zen. Eman beharreko azalpenak eman ostean, ilara batean antolatzeko agindua jaso zuten. Momentu horretan, nahiz eta ume guztiak ilara batean antolatzen saiatu, ordena mantentzea oso zaila izan zen.

Ondoren, behin zirkuituaren ordena azalduta, musika jarri zen. Haien interesen arabera mugitzen ziren zirkuitutik nahiago zuten materiala erabiltzen. Honetaz gain, musika gelditzen zenean haiek ere tokian geldi egon behar zirela ulertzea erronka handia izan zen. Hala ere, jardueraren zenbait helburu bete ziren.

Saioari amaiera emateko, musika tristea jarrita modu aske batean mural bat egitea izan zen. Argibideak eman eta gero, papera lurrean jarri eta honen inguruan eseri ziren. Batzuei ekintza egitera animatzea izugarri kostatu zitzaien, hortaz, hauek motibatzen eta parte-hartzera animatzeko beharra zegoen.

Azkenengo jarduera honen helburu nagusia oraingoan musika tristea jarrita eta musika alaiarekin egindako murala sortzeko erabili zituzten kolore berdinak eskainiz, murala egiteko erabilitako koloreak aldatzen diren edo ez aztertzea zen. Jarduera burutu ostean, hasiera batean finkatutako helburu hori praktikan ez dela ematen bermatu zen. Hala ere, bi musika desberdin erabiltzeak haurren jarreran eragin zuen. Musika alaiarekin modu aktiboago batean parte-hartzen zuten eta tristearekin, aldiz, oso lasai aurkeztu ziren.

Hirugarren saio honi errutinarekin ere hasiera eman zitzaion. Saio honetan txertatuko ziren mugimendu berriak konplexuagoak zirenez, jarduerarekin hasi baino lehen hauen aurkezpena egin zen.

Lehenengo txanpan, soilik berriak ziren mugimenduak ozen esaten ziren oraindik berriak zirelako. Bigarrenean, berriz, noizbehinka berriak ziren mugimendu hauek egiteko argibideak aditzera ematen ziren. Mugimendu berri hauek txeratzean, batzuk hainbat zailtasun izan zituzten, beste batzuk aldiz, ikusi eta zuzenean imitatu.

Hirugarren saio honetako bigarren jarduera katu-yoga zen eta honi hasiera emateko asmoz, proiektorearen aurrean eseri ziren. Ariketa egiteko, zapatillak kendu zituzten eta girotzeko, gela ilunpean gelditu zen musika lasaia entzuten zen bitartean. Ondoren, lasai sentitzeko helburuarekin, arnasketaren lanketa egin zen, airea sudurretik hartu eta ahotik kanporatzen saiatuz.

Azalpenak ematerako orduan, oso zaila izaten zen umeen arreta bereganatzea, horregatik, argibide hauek ahalik eta motzenak izan behar ziren modu erakargarri batean eskaintzen diren heinean. Honetaz gain, arbela digitalean, gauzatu beharreko postura ezberdinak adierazten zituzten katuak agertzen ziren. Haurrak zaila aurkitzen zuten katuarekin identifikatzea, beraz, ni eredu bezala aritu nintzen postura bakoitza osatzeko eman behar ziren urratsak azalduz.

Behin postura guztiak eginda, umeentzako gorputza tolestea eta oreka mantentzea nahiko zaila izan zela nabaria zen. Hala ere, gehienak interesa erakutsi zuten eta laguntzarekin, jarduera era arrakastatsu batean burutzeko gai izan ziren.

Saioarekin amaitzeko, ipuin motore musikatua jorratu zen. Haurrak istorioak entzutera ohituta ez zeudenez, modu dinamikoan egiteko eta umeen arreta bereganatzeko beharra zegoen jarduera ondo joateko.

Ipuina kontatzen hasi aurretik, istorio bat entzungo zutela azaldu zitzairen eta jarduera hasiko zela jakinarazteko, ipuinari hasiera emateko formula moduko bat erabili zen. Jardueran zehar nahiko adi egon ziren, baina mugimenduren bat egitean edo soinuak entzutean, pixka bat aztoratzeko saiakerak egiten zituzten. Mugikuntza nabariagoa eskatzen dituzten alderdi hauek ematean, arreta galtzen zuten eta berriro istorioa entzuteko jarrera bereganatzea asko kostatzen zitzairen.

Kontatutako ipuinari erreferentzia eginez, nik asmatu nuen. Honen iraupena hamar minutukoa da eta bi urteko haurrentzat luzeegia dela egiaztatu da, izan ere, bost minutu baino gehiago irauten dituzten azalpenak adi entzuteko gai ez dira oraindik. Dena den, kontakizuna oso dinamikoa izateari esker eta haurren arreta bereganatzeagatik, jarduera honetatik jasotako erantzuna positiboa izan zela ikusten da.

Laugarren eta azken saio honekin hasteko, musikaren errutina azken aldiz gauzatu zen. Oraingoan, ez ziren mugimendu berririk txertatu eta honen helburua errutina ahalik eta modu autonomoagoan egitea da.

Orokorrean, egin beharreko mugimenduak menperatuta zituzten eta nahiko motibatuta zeuden. Hala ere, koordinazioa eta lateralitatea lantzen dituzten urratsak guztiz zuzena den modu batean adieraztea nahiko zaila zen haientzat.

Jarraian egin genuen bigarren jarduera koreografia dantzatzea izan zen. Horretarako, *O Bugi Bugi* abestia erabili zen dantzatzeko aukera eskaintzeaz gain, gorputz atalak lantzeko ere abesti bikaina delako. Egindako mugimenduei helduz, nahiko sinpleak ziren, esaterako, txaloak, gerria mugitu, saltoak eman... Koreografia hau birritan egin zen, lehenengo aldia aurkezpena, eta bigarrena, jardueran murgiltzeko aukera izanda.

Dantza egiten hasi baino lehen, azaldutako mugimenduen aurkezpena egin zitzairen eta umeei imitatu. Jarraian, mugimenduak musikarekin batera gauzatuko zirela zekiten eta ez zituzten hauek erreproduzitzeko inolako zailtasunik erakutsi. Hala ere, mugimenduen ordena menperatzea konplexuagoa zen haientzat eta behatzen zutena imitatzera mugatzen ziren.

Lehenengo txanpan mugimendu bat egin baino lehen honen izena ozenki esaten zen bitartean, bigarren txanpan egin beharreko mugimenduak ez ziren ahoz adierazten. Hortaz, motibazioa murriztu zen haurren artean eta batzuetan galduta zeudela ematen zuen.

Saioarekin eta esku-hartzearekin amaitzeko, ipuin motore musikatua bigarren aldiz egin zen. Oraingo honetan, kontaktetan noiz partehartzen zuten ondo zekiten, horregatik, mugimenduren bat egitean, zutik jarri eta zer nolako mugimendua gauzatu behar zutela primeran ikasi zuten. Era berean, mugimenduren bat egitean edo nik musika tresnak jotzean, nahiko urduri jartzen ziren, baina horrek ere motibazioa sustatzen zuen.

#### 4.2 GrALaren esperientzia

Gratu Amaierako Lan honen helburu nagusia, besteak beste, oraindik nahiko berria den musikotrizitatea modu hurbilago batean ezagutzeta da. Honen harira, lan honetan diziplina berritzaile honek dituen onurak aditzera ematen dira aurrera eramaten den esku-hartze baten bitartez.

Hasiera batean, gaia zehaztea izugarri kostatu zitzaidan. Psikomotrizitatearen arlokoa izan behar zuela banekien, baina lan honetan zein aspektuei erreparatuko nien erabakitzea zailagoa izan zen. Musikotrizitatea ezagutu nuenean, berriz, oso interesgarria eta beharrezkoa iruditu zitzaidan, hortaz, lan honetan txertatzeko bermea izan nuen.

Hala ere, informazioa jasotzen hastean, nire burua nahiko galduta sentitzen nuen topatutako informazioa nahiko eskasa zela sentitzen nuelako. Azken batean, oraindik oso garatuta ez dagoen zerbait denez, musikotrizitatearen inguruan topatutako teoria urria zen. Dena den, mugimenduaren eta musikaren arteko lotura aztertzen duten zenbait teoria arakaturik, azkenean lortutako informazio iturria emankorra izan da.

Bildutako informazioa osatzeko eta kontrastatzeko asmoz, zentroko zuzendariarekin hitz egin nuen haiek musikotrizitatea lantzeko idea zutenez, honen inguruko teoria baldin bazuten jakiteko asmoarekin. Jasotako erantzuna ezezkoa izan zen, oraindik dokumentazio hori eskuratu behar zutela esan zidaten. Hori horrela, formakuntza saioak ematen zituen gizonarekin hitz egin nuen, baina honek eskainitakoa ere gutxi izan zen.

Ilido beretik, esku-hartzea aurrera eraman nuen zentroko tutoreak gaiaren inguruan zituen ezagutzak eskasak ziren, hortaz, nahiko modu autonomoan aritu naiz ahalik eta teoria gehien topatzeko bilaketa honetan. Honetaz gain, esku-hartzea diseinatzeko, musikotrizitateko zenbait saio behatzea gustatuko zitzaidakeen, baina saio hauek emanda zeudenez, ezinezkoa izan zen. Hala ere, egoera honen aurrean irtenbide bat eman zidaten. Hiru urteko gelaren musika eta psikomotrizitateko hainbat saio behatu, ondoren, bi irakasgai hauek uztartuz, nik musikotrizitatea lantzeko saioak prestatzeko gai izateko helburuarekin.

Esku-hartzea gelara eraman baino lehen, zenbait beldur nituen. Lehenbizikoa eta gehien kezkatzen ninduen, Gradu Amaierako Lan honen txosten idatzi hau nola antolatuko nuen zehaztea izan zen. Beste GrALA batzuk aztertuz eta atalak zehaztuz, txostena itxura hartzen joaten zela antzeman nuen eta nituen beldurrak apaltzen joan ziren.

Hasieran izandako beldurren artean, haur taldearen adina ere aurkitzen zen. Esku-hartzea bi urteko gelan egin nuen eta jarduerak adin txikiko haur hauek dituzten gaitasunetara egokitzea nahiko zaila egin zitzaidan. Jarduerak gelako haur guztien erritmoetara egokitu eta hauen bitartez lortu nahi nituen helburuak bidegarriak izateko beharra zuten. Horregatik guztiagatik, jarduerak zehazteko lanean denbora dezente eman nuen.

Nahiz eta hasiera batean zenbait beldur izan, esku-hartzea aurrera egin ahala, eskuratutako lorpenez jabetzen hasi nintzen. Musikotrizitatean trebatzen den esku-hartze honen bidez, ikasleek musikaren eta mugimenduaren artean sortu daitekeen harremanaz ohartzea lortu nahi nuen. Orain jarduera guztiak gauzatu direla, lan honen helburu nagusia lortu egin dela esango nuke.

Aldi berean, haurrak txikiak izateagatik jarduera bakoitzarekin lortu nahi diren helburuak bertan behera gelditzeko beldurra guztiz desagertu zen. Izan ere, erakutsi



dituzten gaitasunak pentsatutakoa baino askoz konplexuagoak izan dira. Askotan, txikiak izateagatik gutxiesten ditugu haurrak, eta ez gara ohartzen zenbait ekintzei egokitzapen batzuk egin ostean, problema barik gauzatzeko gai direla.

Ibilbide honetan zehar nire burua nola ikusi dudan eta izandako sentsazioen inguruan hausnartzeaz gain, egokia ikusten dut ere nire burua auto ebaluatzea. Aurretik azaldu dudan bezala, hasiera batean niretzat zailak ziren egoerak kudeatzeko eta hauetatik garaile ateratzeko gai izan naiz. Esku-hartze honetan irakasle moduan aritzean, nire rola ganoraz bete dut, beharrezkoa den jarrera eta hezitzaile gisa argi ditudan printzipioak errespetatuz.

Jarduerei helduz, hauek gelako haur guztien erritmoetara moldatzea lortu dut eta askotarikoak direla esango nuke. Era berean, hasieratik zehaztutako helburu guztiak modu eraginkor batean bete dira eta haurren artean motibazioa sustatzeko gai izan naiz.

Dena den, hobetzeko alderdiak ere daude, adibidez, esku-hartzea epe luzeago batean gauzatzea. Musikaren intentsitatea eta altuera lantzeko errutinaren kasuan, errutina bat denez, saio gehiagotan lantzea eskatzen du. Era honetan, ikasleek egin beharrezkoa askoz hobeto menperatuko lukete eta emaitzak aberatsagoak izango lirateke.

Hobetzekoekin jarraituz, ipuin motore musikatuari dagokionez, iraupen luzeokoa izan zen. Umeei istorio osoaren haria jarraitzeko zailtasunak zituzten eta horrek aspertuta egotera eramaten zituen. Animalien zirkuituko jardueran ere, musika etetea haiek tokian gelditzea konplexuegia izan zen. Hala ere, topatutako oztopo hauek ez dute jardueren helburu nagusia oztopatzen, beraz, hobetzekoak bezala hartzen ditut eta ez porrota gisa.

Amaitzeko, gaiaren inguruan ditudan ezagutzak zabaltzea gustatuko litzaidakela aitortu behar dut. Hezkuntza berritzaile baten alde egiteko beharra dago eta musikotrizitatea ezagutzera ematea aurrerapauso handia izango litzateke lanketa horretan. Nire aldetik, nahiz eta hasieran galdua sentitu eta erronka handia zela pentsatu, garaile atera naizela esango nuke eta niretzat ezezagunak diren hainbat gauza ikasteko aukera izan dut nire prestakuntzarako oso aberatsa izan dena.

## 5. Bibliografía

Aucouturier, B. (2004). *Los fantasmas de la acción y de la práctica psicomotriz*. Bartzelona: Grao.

Aucouturier, B.; Mendel, G. (2004). *¿Por qué los niños y las niñas se mueven tanto?* Bartzelona: Grao.

Ajuriaguerra, J.; Soubiran, G. (1959). *Indications et techniques de rééducation psychomotrice en psychiatrie infantile*. La Psychiatrie de l'enfant.

Bernal, J. (2000). *Mesa redonda: La investigación como proyecto de futuro*. Implicaciones de la música en el currículum de Educación Infantil. Lista Electrónica Europea de Música en la Educación (LEEME).

Bucher, H. (1976). *Trastornos psicomotores en el niño. Práctica de la reeducación psicomotriz*. Bartzelona: Toray Masson.

Castañer, M.; Camerino, O. (1993a). *La educación psicomotriz y sensoriomotriz en las primeras etapas de la infancia*. En Fundamentos de Educación Física para Enseñanza Primaria. Bartzelona: INDE.

Ceular, M.T. (2009). *Educación musical en Infantil, pero ¿cómo? Innovación y experiencias educativas*.

Durivage, J. (2005). *Educación y psicomotricidad*. Sevilla: Trillas.

Fernández, L. (2014). *El juego libre y espontáneo en Educación Infantil. Una experiencia práctica*. Universidad de Cantabria.

Ferrándiz, I.M. (1999). *Perfiles de desarrollo motor y deficiencia mental*. Madrid.

Fink-Jensen, K. (2007). *Attunement and bodily dialogues in music education*. Philosophy of Music Education Review.

García, A. (1995). *La educación de la expresividad musical en el niño de educación infantil*. Ediciones Universidad de Salamanca.

García, M.T. (2014). *La importancia de la música para el desarrollo integral en la etapa Infantil*.

Godall, T. (2010). *Emmi Pikler: la competencia motriz del bebé es posible cuando cambia la mirada del adulto*. Revista Aula de Infantil.

Gomez, R. H. (2003). *El aprendizaje de las habilidades y esquemas motrices en el niño y en el joven*. Significación, estructura y psicogénesis. Buenos Aires: Stadium.

Johnson, D.W.; Johnson, R.T.; Holubec, E.J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Argentina: Editorial Paidós SAICF.

Lapierre, A.; Aucouturier, B. (1980). *El cuerpo y el inconsciente en educación y terapia*. Bartzelona: Editorial Científico-Médica.

Mueller, A. K.; O'Hagin, I. B. (2002). *Music and Movement Make Natural Patners*. Teaching Music.

Núñez, M.A. (2012). *Le Boulch: Propuesta Didáctico Pedagógica para favorecer el desarrollo de la Psicomotricidad en niños de primero de preescolar*. México.

Piaget, J. (1973). *El nacimiento de la inteligencia en el niño*. Argentina: Ed Morata.

Picq, L.; Vayer, P. (1977). *Educación psicomotriz y retraso mental*. Bartzelona: Editorial Científico-Médica.

Pikler, E. (2011). *Moverse en libertad*. Madrid: Narcea.

Sanchez Bañuelos, F. (1992). *Bases para una didáctica de la Educación Física y el Deporte*. Madril: Gymnos.

Shehan, P. K. (1987). *Movement: The Heart of Music*. Music Educators Journal.

Vaquero, A. (1992). *Educación Física de Base II*. Apuntes del curso de Postgrado de Educación Física para Primaria. E.U de Magisterio de Bilbao. UPV/EHU. Bilbao.

Vilar, M. (2004). *Acerca de la Educación Musical*. Revista electrónica de Léeme (Lista Europea de Música en la Educación).

Vizcarra, M.T. (2007). *Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan (0-6 urte)*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Wickstrom, R.L. (1990). *Patrones motores básicos*. Madrid: Alianza Deporte CSD.

Zulaika, L.M. (2000). *Garapen psikomotorea*. Haur Hezkuntzako irakasleen ikasketak. Gasteiz: Irakasleen U.E. (dokumentu argitaratu gabea).